

**VI. eranskina:**  
**ERABAKIA, 2021eko MAIATZAREN 21ekoa**

**SGIKerreko goi mailako teknikaria (Proteomika), 1. taldea.**

Kategoria profesionala: SGIKerreko goi mailako teknikaria.

Espezialitatea: Proteomika.

**PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

**I. eranskinaren b) atala, 2.1 puntua:**

Doktoregoa eta, baita ere, gradu edo lizentziatura hauetakoren bat: zientziak, osasun zientziak edo ingenieritza.

**MEREZIMENDU LEHIAKETA**

**I. eranskinaren A) atala, 6.2.2 puntua:**

Poltsan sartzeko eskatzen direnez bestelako titulazio akademiko ofizialak baloratuko dira, baremo honen arabera:

- Doktoregoa: 6 puntu, Proteomikako espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
- Gradua, lizentziatura, goi mailako ingeniaritza edo goi mailako arkitektura: 4 puntu, Proteomikako espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
- Unibertsitate, ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCT) erregistratutako unibertsitate master ofiziala: 3 puntu Proteomikako espezialitatearekin loturarik badu; 1 puntu, loturarik ez badu.
- Unibertsitate bateko graduondoko berezko titulua, gutxienez 450 ordukoa edo gutxienezko iraupen hori bermatzen duen kreditu kopuru duena. 2 puntu bakoitzeko, Proteomikako espezialitatearekin loturarik badu; 1 puntu, loturarik ez badu.